

FAUSTO AROZENA

(1896-1980)

Bizitzan zehar izan zuen apaltasun berean joan zitzaigun Fausto Arozena Arrege jauna 1980.eko Abenduaren 16an, Donostian. Gure historiari zerbait arduratu direnak ohartuko dira gizon apal eta jakitun honen galerez...

Fausto, Donostian bertan sortua zen 1896.eko Uztailaren 15ean. Gaztarotik historia ikerketari emana zen. Euskaraz ere zerbait idatzi zuen. Ez askorik. 1920. urtearen inguruan hasi eta *Junior*-en zenbait kolaborazio, batez ere poesiaz; baina, baita ere, Eusko-Ikaskuntzaren *deia* eta *Egan*-en argitara eman zituen euskarazko zenbait lan: Urte berri poema eta "Universidade edo irakaskuntza orokorra" eta abar. Hala ere, haren lan nagusiak erdarazkoak dira, bereziki historia gaiak zenbait liburu eta aldizkaritan barreiatuak.

Idaztez aparte, Gipuzkoako Diputazioko artxiboaren arduradun izan zen eta beraren herrienganako maitasunez, urterik larrietan ere, lanik anitz egin zuen erarik isilenean. Hala ere, ekintzarik aipagarrien artekoak ditugu Julio Urkiko hil zenean hark utzitako biblioteka aberatsa Gipuzkoako Diputazioak erostea, Protokolo artxiboa antolatzea, eta abar. Baina, gizaldi berrientzat harrigarria bada ere, gerraondan Diputazioko Bibliotekan "garbiketa" bat egin nahi zutenean, gorrienak edo abertzaleenak ziren guziak erreaz, F. Arozena gogor jarri zen holakorik egin ez zezaten, Bibliotekak liburu gordailu izan behar dutela eta ez erretzeko leku.

Eusko Ikaskuntza sortzean, 1919. urtean, bertako idazkaritza lanetan sartu zen. Berak aitortzen zuenez, maisurik hoberena Serapio Mujika izan zuen. Hura hiltzeaz haren kargura pasatu zen, Gipuzkoako Diputazioaren gordailu arduradun.

Historia ikerketaz aldizkari askotan idatzi zuen, bereziki *RIEV* eta *Bol. de la R. S. V. de los Amigos del País*-en. Hala ere, lanik garrantzitsuenak haren liburuetan biltzen dira: *Narraciones Folkloricas* (1924), *Doña Blanca Garcés* (1925), *Reseña histórica de Rentería* (1930) S. Mujikarekin elkarlanean egina, *Guía de Guipuzcoa* (1930) S. Mujikaren laguntzaz, *Guipuzcoa por San Ignacio* (1950), Bachiller Zaldibiaren *Suma de las cosas Cantábricas y Guipuzcoanas* edizio kritikoa (1944), *La casa de Zumalacárregui* (1948) J. Yrizarrekin elkarlanean, *Protocolos guipuzcoanos*, *Indice* (1948), *El País Vasco visto desde fuera* (1949), *Brumas de nuestra historia* (1950), *Problemas históricos guipuzcoanos en la vida de San Ignacio* (1946), *Garibay* (1960), *Nuestra pequeña historia* (1961), *Diccionario biográfico vasco. Guipúzcoa* (1963), *Guipúzcoa en la historia* (1964).

Borondate oneko gizona zen eta ikerketarako galdezka joatzen zitzaizkion beti laguntzeko prest. Historia kontuko edozein galderari erantzuten liburu idekia bezala zen, xehetasunik tipiena adieraziz eta parterik korapilotsuenak ere argi ta garbi agertuz. Haren burua, gordailu aberatsa zen eta beti nornahirentzat idekirik.

Geroko urteetan ere, Gipuzkoako historia aztertu nahi dutenek, haren lanetara jo beharko dute iturririk gardenen bila. Eta, zordun garenok, inoiz ez gara ahaztuko.

J. S. M.